

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1558

341/2022 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Isidoro Calvo Lorenzo jauna aldi baterako izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Ospitalizazio / Kanpo Kontsultetako (Integrazio Asistentziala) Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko buru, lau urte luzagarri.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen 2022ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Ospitalizazio/Kanpo Kontsultetako (Integrazio Asistentziala) Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA 12 zk. eta 2022ko urtarrilaren 26ko BOE 22. zk.)

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Isidoro Calvo Lorenzo jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Ospitalizazio/Kanpo Kontsultetako (Integrazio Asistentziala) Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Isidoro Calvo Lorenzo jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Ospitalizazio / Kanpo Kontsultetako (Integrazio Asistentziala) Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Atal Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022 martxo 14a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

2022ko apirilaren 7a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, 2022ko martxoaren 11.

Barrualde-Galdakaoko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.